Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2261

EBAZPENA, 2011ko apirilaren 6koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, Zientzia, Kooperatiba-Ikerketarako Zentroetako txertatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteei laguntzeko programa arautzen duen Aginduak ezarritako esparruan 2011ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia ezagutarazten duena.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko abuztuaren 4ko Aginduak (2008ko abuztuaren 21eko EHAA, 158. zk.), Zientzia, Kooperatiba-Ikerketarako Zentroetako txertatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteei laguntzeko programa arautzen du.

Agindu horren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkaturiko laguntzetarako deialdia egitea 2011ko ekitaldirako eta horretarako beharrezkoak diren arauak ematea.

Adierazitako laguntza horiek emateko ekonomia-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan ezarritako dagozkien aurrekontu-partidetatik aterako dira.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2008ko abuztuaren 4an emandako Aginduaren bitartez arautu zen Zientzia, Kooperatiba-Ikerketarako Zentroetako txertatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteei laguntzeko programa. Agindu horretan, laguntza batzuk aurreikusita zeuden. 2011ko ekitaldirako laguntza horien deialdia egitea da ebazpen honen xedea.

Diru-laguntzen xede diren jarduerak 2011-2012 epean eramango dira aurrera.

Deialdia finantzatzeko, guztira 25.000.000 euro bideratuko dira, honela banatuta: 12.000.000 euro 2011n eta 13.000.000 euro, berriz, 2012an, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horri dagokionez ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2261

RESOLUCIÓN de 6 de abril de 2011, del Viceconsejero de Innovación y Tecnología, por la que se hace pública la convocatoria de ayudas para el ejercicio 2011, en el marco establecido por la Orden que regula las ayudas a los Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación acreditados en la categoría de Centros de Investigación Cooperativa.

La Orden de 4 de agosto de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo (BOPV n.º 158, de 21 de agosto de 2008) regula el programa de ayudas a los Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación acreditados en la categoría de Centros de Investigación Cooperativa.

De conformidad a lo establecido en el artículo 7 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en la misma se establecen, para el ejercicio 2011, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 7 de la Orden de referencia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2011 de las ayudas previstas en la Orden de 4 de agosto de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas a los Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación acreditados en la categoría de Centros de Investigación Cooperativa.

El ámbito temporal de las actuaciones objeto de la subvención se circunscribe a los años 2011-2012.

A la financiación de la convocatoria se destinará un total de 25.000.000 de euros, desglosados de la siguiente manera: 12.000.000 de euros para 2011 y 13.000.000 de euros para 2012, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Programa arautzen duen aginduaren 2. artikuluarekin bat etorriz, deialdi honi lotuta, gehienez jota eta guztira emango den diru-laguntzen zenbatekoa ez da izango artikulu honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, lehengoa eguneratuta sortutako diru-kopurutik gorakoa, deialdia ebatzi aurretik. Kasu horretan, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak ebazpena emango du aurreko guztiaren berri emateko.

2. artikulua.– Eskakizunak.

Aipatutako aginduaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dira, Zientzia, Kooperatiba-Ikerketarako Zentroetako txertatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteei laguntzeko programa arautzen duen Aginduan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko.

3. artikulua.– Eskaerak eta epeak.

1.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eskabide- eta inprimaki-ereduak eskainiko ditu Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuaren bitartez (SPRI), edo bestela www.euskadi.net/industria web orrian eskura daitezke eredu horiek, behin laguntzen deialdia egin ondoren Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

2.– Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak, SPRI (ISEB), Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Herri Baltzuan aurkeztu beharko dira (Urkixo Zumarkalea 36, 4. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, Bilbao), bai zuzenean, bai Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako bideren bat erabilita.

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2011ko maiatzaren 31n amaituko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean ekarriko ditu ondorioak agindu honek.

Bigarrena.– Deialdi-ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 6a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.

De acuerdo con el artículo 2 de la Orden reguladora del programa, el volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria no podrá superar el importe consignado en este artículo o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente, con carácter previo a la resolución de la convocatoria. En tal caso se dará publicidad mediante la correspondiente resolución del Viceconsejero de Innovación y Tecnología.

Artículo 2.– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden que regula el programa de apoyo a los Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación acreditados en la categoría de Centros de Investigación Cooperativa, deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 4 de dicha Orden.

Artículo 3.– Solicitudes y plazos.

1.– Un modelo de solicitud y de formularios será facilitado por el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo a través de la Sociedad para la Transformación Competitiva (SPRI) o podrá obtenerse en la web www.euskadi.net/industria una vez efectuada la convocatoria de las ayudas mediante resolución del Viceconsejero de Innovación y Tecnología.

2.– Las solicitudes y demás documentación complementaria deberán presentarse en la Sociedad para la Transformación Competitiva (SPRI) cuyas dependencias se encuentran en Bilbao, Alameda Urquijo, n.º 36-4.ª planta (Edificio Plaza Bizkaia) bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución y finalizará el 31 de mayo de 2011.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución de convocatoria podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de abril de 2011.

El Viceconsejero de Innovación y Tecnología,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.